

Liburuak

KRITIKA

Hondoratu eta salbatuen historia

Helduen literatura

Gema Lasarte

HAU GIZON BAT BADA TITULUA irakurri nuenean, artean Primo Leviren itzulpena zela jakin gabe, interresgarria iruditu zitzaidan eta pentsatu ere egin nuen maskulintate berrien inguruan jardungo zuela. Konturatu nintzenean Primo Levirena zela, ez neukan Auschwitzeko kontuak astintzeko gogo handirik. Baina irakurri nionean Auschwitzeko aldia izan ez balu, ez zukeela, segur aski, inoiz idatziko, gogoratu nintzen *Le Murmure des fantômes* idatzi zuen Boris Cyrulnik idazle juduarekin eta beste erresiliente baten narrazioa topatuko nuelakoan gogoz ekin nion leitzeari. Beraz, gosea, hotza eta heriotza *in extremis* bizi, gainditu eta kontatzera ausartu zen kimikari doktorearekin egun batzuk pasatzea deliberratu nuen.

Kimikariak aitortzen du Auschwichetik atera berritan idatzi zuela kontakizun hau, eta ezin bestela izan, kontaktaren objektibotasunak eta zehaztasunak kimikari baten doitasunean ez ezik, gertutasunean, oso bertan bizitutako eta metatutakoan hartzen baitu arnas. “Ez dugu gurerik deus:



Hau gizon bat bada.
Primo Levi.
Itzulpena: Mikel Iurrtia.
248 orrialde.
20 euro.

arropak kendu dizkigute, oinetakoak, baita ileak ere; mintzatuko bagina, ez gintuzkete entzungo, eta entzungo bagintuzte, ez ligukete ulertuko. Izena ere kendu digute”. Gizonaren suntsiketaz gain, Levik kontakizuna historia mingarri, krudel eta hunkigarriz bete du. “Halakoak baitira gure historia guztiak, ehunka mila historia, denak bereziak eta denak halabehar tragiko eta harrigarri batez mamituak. Gaez kontatzen dizkiogu elkarri”. Finean hondoratuen eta salbatuen historia nor bakoitza bakartasun etsigarri eta basa bizia, bizi-rauteko lehian hezia.

Zaharrenean, ahulenen eta musulmanen heriorako bideak etenik gabekoak dira testuan, “izan ere, ezkilak beti egunsentian jotzen baitu eta orduan diana da, baina eguerdian jotzen badu” barrakoieta giltzapertzea eta ahulena, zaharrenak, ez deusenak hautatzea esan nahi baitu eta hautatuek gaseranzko bueltarik gabeko bidaiia hastea. Salbatuek hurrena ezkilak jo arteko bizia lortu dute.

Orrialde hauetako pertsonaiak ez dira gizonak. Haien gizatasuna lurperatua izan da. Emakumerik ez dago, krematorioetan desagertu dira, haurrekin, zaharrekin eta gaixoekin batera. “Baina Lorenzo gizona zen; aratza eta kutsatu gabea zen haren gizatasuna, ukapenezko mundu honetatik kanpo zegoen hura. Lorenzori zor diot ni neu gizon bat nintzela ez ahantzia”.

Eta liburu hau, lekukotasunaren hizkuntza erabiliz, grinarik gabea dela aitortzen du Levik. “Ez biktimaren arrangurata, ez mende-katzailearen sumindua, hitza orduan eta sinesgarriagoa eta eragingarriagoa delakoan”. Zuek zarete epaileak.



Tolosa

Liburu azoka azaroaren 18tik 27ra, San Frantziskon

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!